



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA-PROZESUA

EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTURAKO BI PLAZA

Lehenengo ariketa: proba teorikoa

2026-02-02



1 2/2016 LEGEAK, 7. ARTIKULUAN, TOKI-ERAKUNDEEI HONAKO ESKUMEN HAUEK AITORTZEN DIZKIE, IZENDATUTA DAUZKATEN ARLOETAKO ZERBITZU ETA JARDUERETAN:

- 1a) Euskararen erabilera sustatzea eta euskararen normalizazioa planifikatzea, eskumen propio gisa.
- 1b) Euskararen erabilera sustatzea eta euskaren normalizazioa planifikatzea, instituzio komunek eskuordetzen badiete.
- 1c) Euskararen erabilera sustatzea, eskumen propio gisa, baina ez euskararen normalizazioa planifikatzea.
- 1d) Euskararen erabilera sustatzea eta euskararen normalizazioa planifikatzea, baina ez eskumen propio gisa.

2 SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN URRIAREN 1EKO 40/2015 LEGEAREN 32. ARTIKULUAREN ARABERA, PARTIKULARREK ESKUBIDEA IZANGO DUTE DAGOZKIEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KALTE-ORDAINAK JASOTZEKO:

- 2a) Euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
- 2b) Euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
- 2c) Euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioz sortu bada.
- 2d) Euren ondasunetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.

3 ADIERAZ EZAZU ZEIN HIZKUNTZATAN IZAPIDETUKO DITUZTEN TOKIKO ERAKUNDEEK ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK, ARAU OROKOR GISA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA:

- 3a) Gaztelaniaz.
- 3b) Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.



- 3c) Dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.
- 3d) Hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.

4 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 5. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER KASUTAN EGIAZTATU BEHARKO DA ORDEZKARITZA?

- 4a) Beste pertsona baten izenean egiten diren egintza eta kudeaketa orotarako.
- 4b) Beste pertsona baten izenean errekurtsioak jartzeko, eskubideei uko egiteko, eta izapide huts diren egintza eta kudeaketarako.
- 4c) Beste pertsona baten izenean eskaerak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekurtsioak jartzeko, akzioetan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, eta izapide huts diren egintza eta kudeaketarako.
- 4d) Beste pertsona baten izenean eskaerak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekurtsioak jartzeko, akzioetan atzera egiteko eta eskubideei uko egiteko.

5 TOKI-JAURBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN 7/1985 LEGEAREN 22. ARTIKULUAREN ARABERA, NORI DAGOKIO, NOLANAHI ERE, ORDENANTZAK ONARTZEKO ESKUMENA UDALETAN?

- 5a) Tokiko Gobernu Batzarrari.
- 5b) Udal Osoko Bilkurari.
- 5c) Tokiko Gobernu Batzarrari araubide erkideko udalerrietan eta Udal Osoko Bilkurari Biztanleria Handiko Udalerrietan.
- 5d) Alkateari.

6 SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ARAUTZEN DUEN 40/2015 LEGEAREN 49. ARTIKULUARI JARRAITUZ, HITZARMENEK EDUKI DEZAKETEN IRAUPENARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ESALDIRIK ZUZENENA?

- 6a) Hitzarmenean zehaztutakoa izango da, baina gehienez 4 urtekoa (ez badu arau batek espresuki jasotzen iraupen handiagoa izan dezakeela), eta zehaztutako epea bukatu baino lehen gehienez ere beste 4 urtera arte luzatu ahal izango da bukatu baino lehen luzapena aho batez adosten bada.
- 6b) Ez du mugarik jartzen. Hitzarmenak dio iraupena zehaztuta geratu behar dela.
- 6c) Urtebete, eta luzatu ahal izango da, gehienez 4 urte bete arte.
- 6d) Hitzarmenean zehaztutakoa eta gehienez 2 urte.



7 TELEKOMUNIKAZIO-EKIPOAK ETA SISTEMAK EROSTEA ETA ALOKAIKURAN HARTZEA XEDETZAT DUTEN KONTRATUAK ZERTZAT JOKO DIRA?

- 7a) Obra-kontratutzat.
- 7b) Zerbitzu-kontratutzat.
- 7c) Hornidura-kontratutzat.
- 7d) Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

8 DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ADINGABE BATEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA BERE ADOSTASUNEAN OINARRITU AHAL IZANGO DA, BALDIN ETA ADIN HONETATIK GORAKOA BADA:

- 8a) 12 urte.
- 8b) 14 urte.
- 8c) 16 urte.
- 8d) 18 urte.

9 38/2003 LEGEAREN 8. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK EMAN AHAL IZATEKO, DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKORIK IZAN BEHAR DUTE?

- 9a) Bai.
- 9b) Ez.
- 9c) Ez da beharrezkoa baina bai komenigarria.
- 9d) Dirulaguntza izendunak emateko bai.

10 38/2003 LEGEAREN 22. ARTIKULUAREN ARABERA, DIRULAGUNTZAK EMATEKO OHIKO PROZEDURA:

- 10a) Norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.
- 10b) Zuzeneko prozeduran izapidetuko da.
- 10c) Zuzeneko prozeduran izapidetuko da, toki-erakundeen aurrekontu orokorretan aurreikusita badaude.
- 10d) Norgehiagoka-araubidean eta zuzeneko prozeduran izapidetuko da.

11 ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNAK HONELA DEFINITZEN DITU HIZKUNTZA HORIEK:

- 11a) Estatu bateko hizkuntza ofizialen dialektoak.
- 11b) Estatu batean bizi diren etorkinen hizkuntzak.



- 11c) Estatu bateko gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten direnak.
- 11d) Biztanle gutxi dituzten estatu txikietako hizkuntza ofizialak.

12 EUSKARA ETA GAZTELANIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN. HAUTATU ERANTZUN ZUZENA:

- 12a) Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak eta propioak dira.
- 12b) Hizkuntza propioa euskara da, eta ofiziala, gaztelania.
- 12c) Hizkuntza propioa euskara da, eta ofizialak, euskara eta gaztelania.
- 12d) Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira, ez hizkuntza propioak.

13 ESKUBIDE HAUETAKO ZEIN AITORTZEN DIE HERRITARREI 10/1982 LEGEAK?

- 13a) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
- 13b) Hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- 13c) Lanbide-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea.
- 13d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

14 HIZKUNTZA-PLANGINTZA EGITEKO, ZER TRESNA ONARTU BEHAR DITUZTE EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEK, 19/2024 DEKRETUAREN ARABERA?

- 14a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Plan estrategikoak eta Kudeaketa-planak.
- 14b) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Erreferentzia Marko Estandarreko Aginte Taula eta Kudeaketa-planak.
- 14c) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta Plan estrategikoak.
- 14d) Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak.

15 19/2024 DEKRETUAREN ARABERA, ZER ADIERAZTEN DU DERRIGORTASUN-DATAK?

- 15a) Derrigortasun-datak adierazten du lanpostuei hizkuntza-eskakizuna noiz ezarri behar zaien.
- 15b) Derrigortasun-datak adierazten du lanpostua betetzeko unean ezinbestekoa dela lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- 15c) Derrigortasun-datak adierazten du lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizunak noiztik behar duen egiaztatua izan.
- 15d) Derrigortasun-datak adierazten du plangintzaldi bakoitza noiz hasi eta noiz bukatzen den.



16 179/2019 DEKRETUKO PRINTZIPIO GIDARI BAT DA HIZKUNTZA PROPIOAREN ALDEKO EKINTZA ARGIAK ABIARAZTEA ETA ONDORIOZ EUSKADIKO TOKI-ENTITATEEK ETA EUSKADIKO TOKIKO SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN GAINERAKO ENTITATEEK:

- 16a) Hizkuntza-aniztasuna sustatuko dute, atzerapausorik ez dute emango, eta gero eta gehiago erabiliko dute euskara bai barneko jardueretan, bai kanpora begirakoetan ere.
- 16b) Hizkuntza-aniztasuna sustatuko dute eta atzerapausoak izan ala ez izan, euskararen erabilera minimoa bermatuko dute, bai barneko jardueretan, bai kanpora begira egiten diren jardueretan ere.
- 16c) Hizkuntza-aniztasuna sustatuko dute eta atzerapausoak izan ala ez izan, euskararen aldeko sentsibilizazio-ekintzak egingo dituzte.
- 16d) Euskara eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza batzuk erabiltzen ahaleginduko dira kanpora begira egiten diren jardueretan

17 179/2019 DEKRETUAREN ARABERA, HIZKUNTZA-AZTERLANAREN IRISMENA AZTERTZERA KOAN KONTUAN HARTUKO DIRA ADIERAZLE HAUEK:

- 17a) Aldaketak udalerriko biztanle-kopuruan, bisitatzen dutenen kopuruan eta bestelako eraginak udalerraren egoera soziolinguistikoan.
- 17b) Aldaketak udalerriko biztanle-kopuruan eta kontsumitzeko hizkuntza-ohituretan.
- 17c) Aldaketak udalerriko biztanle-kopuruan, bisitatzen dutenen kopuruan eta horien ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko edo konpentsatzeko neurriak.
- 17d) Egoera soziolinguistikoan duen inpaktua noraino iristen den adierazten duten adierazle geografikoak.

18 187/2017 DEKRETUAREN SAILKAPENAREN ARABERA, ZEREKIN PAREKATZEN DA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASPOSTUEN 2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA?

- 18a) C2
- 18b) C1
- 18c) B2
- 18d) B1

19 SOZIOLINGUISTIKAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK. HIZKUNTZA JARRERARI DAGOKIONEZ, HAUETAKO ZEIN ADIERAZPEN DA ZUZENA?

- 19a) Hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da.



- 19b) Ikuspegi mentalistaren arabera, jarrera barne-sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman.
- 19c) Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, jarrerak giza jokaeretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko.
- 19d) Aurreko adierazpen guztiak zuzenak dira.

20 2021EKO EUSKAL HERRI MAILAKO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN ONDORIO HAUETAKO BAT EZ DA ZUZENA:

- 20a) Adin-talde guztietan igo da euskararen erabilera 1989tik.
- 20b) Haurrak eta nagusiak batera dauden elkarrizketetan euskararen erabilera altuagoa da haurrak eta nagusiak bereizita daudenean baino.
- 20c) Azken bost urteotan, ez da gorabeherarik izan euskararen kale-erabilera orokorrean.
- 20d) Eremurik euskaldunenean euskararen erabilerak behera egin du.

21 ERRONKA HAUETAKO BAT EZ DA AGERTZEN AROA EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNOK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIKOAN. ZEIN?

- 21a) Hiriburuetan arnagune funtzionalak hedatzeko dirulaguntza bereziak sustatu.
- 21b) Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
- 21c) Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
- 21d) Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

22 *KEMEN* METODOLOGIAREN ARABERA, LAN-HIZKUNTZAREN BARRUAN HONAKO ARLO HAUEK SARTZEN DIRA:

- 22a) Barne-harremanak, kanpo-harremanak eta sortze-hizkuntza.
- 22b) Barne-harremanak, herritarrekiko harremanak eta sortze-hizkuntza.
- 22c) Irudia, prestakuntza eta sortze-hizkuntza.
- 22d) Herritarrekiko harremanak, baliabide informatikoak eta prestakuntza.

23 HONAKO HAUETAKO ZEIN EZ DA EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN III. KONGRESUAN ONARTUTAKO LAN-ARDATZETAKO BAT?

- 23a) Mugimenduko partaide diren tokian tokiko Euskara Elkarteek sortutako Herri-komunikabideen Federazioa osatu.
- 23b) Mugimendu euskaltzale eraldatzaile, anitz eta sendoa izatea eta herritarrak ahalduntzea, nazio mailan zein tokian toki.



- 23c) Euskal hiztunak sortzeko eta sozializatzeko ekimenak plazaratu eta eragin.
- 23d) Erabileran jauzia emateko akordio sozio-politiko-instituzional berriak bultzatu.

24 EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA. HELBURU ESTRATEGIKOAK ESPARRUZ ESPARRU ATALEAN ZEIN HIRU HELBURU ESTRATEGIKO JASOTZEN DIRA?

- 24a) Euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura.
- 24b) Euskararen erabilera familian, eskolan eta aisialdian.
- 24c) Euskararen jabekuntza familian, irakaskuntzan eta euskalduntze-alfabetatzean.
- 24d) Babes politikoa nabarmen handitzea, euskararen prestigioa handitzea eta jai-eta gau- giroan euskara gehiago arnastea.

25 EIBARKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA KUDEATZEKO ANTOLATUTAKO EGITURA ZEIN DA?

- 25a) Euskara batzorde aholkularia, Zuzendaritza-topagunea eta Euskararen lan-mahaia.
- 25b) ENBA batzorde aholkularia, Zuzendaritza-topagunea eta Ekipoa.
- 25c) ENBA batzorde aholkularia, Zuzendaritza-topagunea eta Euskararen lan-mahaia.
- 25d) ENBA batzorde aholkularia, Udalbatza eta Euskararen lan-mahaia.

ERRESERBAKO GALDERAK

26 DIRULAGUNTZEI BURUZKO AZAROAREN 17KO 38/2003 LEGE OROKORRAREN 37. ARTIKULUAREN ARABERA, DIRUA ITZULTZEKO ARRAZOIAK DIRA:

- 26a) Helburua, jarduera edo proiektua guztiz edo zati batean ez betetzea, edo dirulaguntza ematea funtsatzen duen portaera ez izatea.
- 26b) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatuz.
- 26c) Dirulaguntza ematerakoan Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, ez eta haiek hartutako konpromisoak ere, baldin eta helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartzeko moduari eragiten badiote edo horri buruzkoak badira.
- 26d) Erantzun guztiak dira zuzenak.



27 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO GUZTI-GUZTIEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOEK FUNTSEZKO EZAUGARRI BAT BETE BEHAR DUTE:

- 27a) Normalizatuta egon behar dira.
- 27b) Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak igortzea bermatzeko ere.
- 27c) Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.
- 27d) Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.

28 ZEIN ERAKUNDEK EGITEN DITU GAUR EGUN EUSKAL HERRI OSOKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETAK?

- 28a) Eusko Jaurlaritzak.
- 28b) Soziolinguistika Klusterrak.
- 28c) Siadecok.
- 28d) Aipatutako erakunde guztiek elkarlanean.

29 EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA. OINARRI ESTRATEGIKOAK ATALAREN ARABERA, ZEIN ADIERAZPEN DA OKERRA?

- 29a) Hiru alderditan gauzatu behar da aldaketa: komunikazio eta sentsibilizazio etengabea, zehar lerrotasuna Udalaren jardunean eta eragileen arteko saretzea.
- 29b) Komunikazio eta sentsibilizazio atalean, komunikatu euskararen egoeraz jabetzeko.
- 29c) Eragileen arteko saretzean Udalarari euskararen gaiari lehentasun handiagoa ematea eskatzen zaio, eta EuskaGintzari, berriz, orain arte bezala lanean jarraitzeko.
- 29d) Udalean zehar lerrotasuna lantzeko teknikarien mahaia sortuko da.

30 HONAKO HAUETAKO ZEIN EZ DA EIBARKO NORMALIZAZIO PLANAREN HELBURU OROKOR?

- 30a) Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- 30b) Udal-langileen hizkuntza gaitasuna sendotzea eta hobetzea.
- 30c) Euskara ere zerbitzu eta lan-hizkuntza izatea



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

- 30d) Herritarren eta Eibarko elkarte, enpresa eta erakundeen euskararen erabilera sustatzea eta erraztea.